

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

#### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

#### **Hasierako onespina ematea Vitoria-Gasteizko "Aldaia" 5. sektoreko RC-10 lursailaren xehetasun-azterketari**

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko ekainaren 19an egindako ohiko bilkuran:

1. Hasierako onespina ematea Gasteizko "Aldaia" 5. sektoreko OR -10 lursailaren xehetasun-azterketari – T. E. A-k aurkeztua Promociones VCI 21, SL -ren izenean–, dossierrean jasota dagoen proiektuarekin bat.

2. Aldaketaren inguruko agiriak jendaurrean jartzea, eta horren berri ematea ALHAOn eta probintzian zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, edozein erakundek edo interesdunek agiriak aztertu eta hilabeteko epean egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan.

Dosierra Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai – Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, behea –, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 19an

*Alkate-lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**